

itsasondo2.0

herriko aldizkaria 57. zk (ekaina 2024)



Gerratik ihesi, pake bila

▼ Itsasondo, Enirio-Aralarko
mankomunitateko kide.

▼ Energia gure
herrian

▼ "Altxaburua" dinamika
martxan, herrian.

aurkibidea

| | |
|-------|--|
| 03-04 | Udaleko berriak |
| 05 | Haurreskola |
| 06 | Guraso Elkarte |
| 07-11 | Eskola |
| 12-13 | Hitzar |
| 14-17 | Elkarrizketa: Inna Musashova eta Ihor Zaichenko |
| 18-19 | Gazteleku |
| 20 | Natura |
| 21 | Motzean |
| 22-25 | Hemeroteka |
| 26 | Liburutegia / Errezeta |
| 27 | Euskara |
| 28 | Agenda |

Sarrerako bertsoak

- 1- Aurtin joan behar ginen gu barnetegira baino esan digute goazela Urkira
Tralala...
- 2- Arazo bat sortu da eskoleen artean horregatik ez goaz inglesa ikastera
Tralala...
- 3- Udaletxeari esker daukagu irteera jolas ezberdin asko egiteko aukera
Tralala...
- 4- Ondo pasako dugu guk denok Urkian korrika eta saltoka galduta mendian

agurra



Kaixo, herritar! Esku artean duzu, Itsasondo 2.0 aldizkariaren 57. zenbakia. Ohi bezala, oraingo ere, herriko kronika jaso nahi izan dugu orrietan.

Udaleko berrietan bildu ditugu udalean azkenaldian harturiko erabakien berriak.

Haurreskolakoek ikasturteko martxa azaldu digute eta hurrengo urtera begirako aurreikuspena izan dute hizpide, adi hainbat data garrantzitsu aipatzen dira eta!

Guraso elkarteko kideek, pantailen arrisruekuen berri eman digute eta Altxaburua dinamika aurkeztu dute.

Komunitate energetikoaren aurrerapausoak ezagutzeko aukera izango dugu hurrengo orrietan.

Gaztelekuko sarbide berria ere martxan da eta haren zehaztapenak ere jaso ditugu.

Ukrainatik etorritako sendiari egin zaio oraingoan elkarrizketa luzea, merezi du beraien bizipenak ezagutzea!

Motzean bada ere, Jessica gehiago ezagutzeko aukera izan dugu elkarrizketa laburrean.

Natura atalean Enirio-Aralarko komunitatekoaren inguruko azalpenak eman dira.

Azkenik, erreposoa egin diogu herrian egindako azken ekintzei eta hemeroteka atalean laburtu ditugu.

Azken nobedadeak liburutegi txokoan aurkituko dituzue eta amaitzeko errezeta goxo bat!

Esan beharrik ez dago aldizkaria hau herritarren parte hartzearekin sortu izateko jaio zela. Azkenaldian boluntario gutxiarekin gabiltza. Hortaz, zerbaitetan laguntzeko prest bazaudete, primeran! Aldizkarirako ideiarekin bat proposatu, elkarrizketak egin, argazkiak lortu, hemeroteka osatu, gai zehatz baten inguruko artikulua idatzi... ekarpen guztiak izango dira ongi etorriak.

Animatu, hortaz, lerro hauek irakurtzera eta aldizkariko parte izatera!

Udaleko berriak

Udalek gaur egun ezinbestekoa dute Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak argitaratzen dituzten dirulaguntza deialdietara aurkeztea hainbat egitasmo aurrera eramateko. Izan ere, udalek dituzten diru sarrerak kontutan izanda, haiekin bakarrik ezinezko zaie haien kabuz proiektu asko gauzatea. Horrela, sarri, dirulaguntza horien ebazpenek eta onarpenek eragin sakona dute udalen proiektuen inguruan.



Horrela, udaletxeen egunerokoan ohikoa bihurtu da proiektu eta egiteko asko dirulaguntza deialdien baitan egitea.

Horren adibide moduan, 2024an Itsasondoko Udalak honako diru laguntza eskaera hauek egin ditu ekainera bitartean, eta hauetatik asko oraindik erabaki gabe daude.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

- KALE KULTURA. GIPIZKOAKO UDALEK ANTO-LATUTAKO IKUSKIZUN ESZENIKOAK ETA MUSIKALAK AIRE ZABALEAN GAUZATZEKO DIRULAGUNTZAK. Zirku tailerra, txalaparta ikastaroa, bertso saioa, kontzertua, antzerki tailerra... Oraindik ebatzi gabe.
- GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK LORTZEKO JARDUERAK EGITEKO DIRU LAGUNTZAK. Itsasondoko Udalak 20 lur sail erosteko eskaera egin du. Ebatzi gabe.
- EUSKARAREN ERABILERA SOZIALA NORMALIZATZEKO TOKIKO PLANAK. Itsasondoko Udalaren euskera planerako diru laguntza eskaera. Ebatzi gabe.
- GAZTERIA, UDALEK HAUR, NERABE ETA GAZTEENTZAKO PLANAK ETA PROIEKTUAK GARATZEKO DIRULAGUNTZAK. Udalekuak, parte hartzea sustatzeko zerbitzua... Ebatzi gabe.

- HERRITARREN PARTAIDETZA SUSTATZEKO LURRALDEKO UDALEI ETA TOKIKO ERAKUNDE TXIKIEI DIRULAGUNTZAK. Bi proiektu aurkeztu dira: batetik, anti-arrazismoa lantzeko saioak eta, bestetik, denda berrira begira, merkataritza-jarduera dinamizatzeko partaidetza prozesua.
- ERREPIDE SAREKO BIDE SEGURTASUNA HOBETZEN DUTEN UDALERRI TXIKIEN ETA TOKI-ERAKUNDE TXIKIEN JARDUKETARAKO LAGUNTZAK. Ebatzita. Bi proiektu aurkeztu ziren:
 - Batetik, Kale Nagusiko espaloia eta errepidearen arteko barandilla babes jartzea. Proiektu honek ez du laguntza jaso.
 - Bigarrenik, GI-2131 errepidean Beko Kalen errepidearen bazterreko barandilla espaloia babes elementu bat da, oinezkoak bertatik seguru igaro ahal izateko beharrezkoa, eta gaur egun egoera desegokian dago. Konpontzeko lanen aurrekontua 45.505 eurokoa da, eta eman diguten diru laguntza 36.129 eurokoa (% 85).
- GIPIZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO LANDA BIDEETARAKO DIRULAGUNTZAK. Ebatzi gabe. Honako bide hauetarako eskatu da laguntza:
 - Urkia
 - Sorabil bidea
 - Lizardi
 - Iturriotz

EUSKO JAURLARITZARA

- EUSKO JAURLARITZA LANBIDE ALPES DIRULAGUNTZAK. Esklusio egoeran egon daitekeen jendea lan munduan txertatzeko laguntzak dira. Peoi bat 5 hilabetez kontratatzekeo laguntza eskatu da. Ebatzi gabe.
- ARTE ESZENIKOAK. GIPUZKOAKO UDALEK ANTOLATUTAKO IKUSKIZUN ESZENIKOAK AIRE ZABALEAN GAUZATZEKO DIRULAGUNTZAK. Bakarriketak, antzerkia... oraindik ebatzi gabe daude.
- UDALAGUNTZA. UDALARENAK DIREN ESKOLETAN LANAK BURUTZEKO LAGUNTZAK. Ebatzita. Honako laguntza hauek jaso ditugu.
 - Udaletxeko aretoko ikasgela zatitzea. 6.042,67 euroko aurrekontua du eta 3.625,60 euro eman dizkigute.
 - Udaletxean eskola dagoen gelan aire girotua eta aireztapena jartzea. 31.506,05 euroko aurrekontua du eta 18.903,63 euro eman dizkigute.
 - Barruko estoreak 2.136,47 euroko kostua du eta 1.281,88 euro eman dizkigute.
 - Kanpoko arotzeria. 3.354,22 euroko aurrekontua du eta 2.012,53 € eman dizkigute. Gastu horiek guztiak udaletxean egindako lanak dira, eskola berria egin bitartean udaletxea eskolako funtzionamendura egokitzekeo egindakoak.
- LANDA GARAPENA EREIN. Baserrietara doan ur hornidura sarea II. Fasea. Ebatzi gabe.

Aurreragoko aleetan eskaera berrien berri eta egindako eskaerek izandako emaitzen berri izango duzue.



Azken txanpa

.....
 Iritsi gara ikasturteko azken txanpara.
 Aurten 16 haur izan ditugu guztira:
 5 haur 0-1 urteko gelan eta 11 haur
 1-2 urteko gelan. Hezitzaile kopuruari
 dagokionez, 4 egon gara guztira;
 horietako bat jardunaldi erdian.

Datorren ikasturteari begira (hasiera data irailaren 5a izango da) haurreskola goizeko 7:30etik 16:00etara egongo da irekita. Haurreskolak doakoa izaten jarraituko du eta dagoeneko bederatzik matrikula ditugu. Irailean hasteko, matrikulatze-aldia martxotik apirilera izan zen. Behin matrikulatze-aldia itxita, haurrak ezingo dira urrira arte hasi. Beraz, beste haurren batek matrikulatu nahi izango balu, irailaren 1etik 10era egin beharko luke. Horretarako matrikulazio orria eta beharrezko dokumentazioa haurreskolan entregatu beharko litzuzke. Jakin, ikasturtean zehar matrikulatzeko aukera badagoela eta aukera hau hileroko zabaltzen dela 1etik 10era bitartean, beti ere, hurrengo hilabetean hasteko. Hau da, urriaren 1etik 10era matrikulatzen denak azaroaren 1ean hasi ahalko du.

Gogoratu, egokitzapen prozesua betetzea beharrezkoa dela, umeak hasten diren egunetik 10 lan egun izango lirateke.

Azkenik, azpimarratu nahi dugu gure haurreskolaren xedea/helburua/funtsa eguneroko esperientzien eta bizipenen bidez, autonomian hezteko aukera ematea dela eta bizitzan agertuko zaizkien erronkak ebazteko estrategiak barneratu eta eskuratzea.



Zalantzak argitzeko edo informazio gehiago eskuratzeko:

- Telf zenb: 943164831 Itsasondoko haurreskola.
- Emaila: itsasondo.itsasondo@haurreskolak.eus.
- Helbidea: Goiko kale 8 behea, 20.249 Itsasondo.

Altxa burua

Azken urteetan egin diren ikerketen arabera pantailen erabilera goiztiarrak besteak beste garapen kognitiboan kalteak eragiten ditu, loaren nahasmenduak sortzen ditu, garapen sozio-emozionalari eragiten dio, adikzioa sortzen du, sedentarismoa areagotzen du, ikusmen arazoak eragiten ditu...



Beste arrisku batzuk ere badaude; besteak beste, eduki desegokiak eskuragarri edukitzea eta jazarpen zibernetikoa.

Beste adibide bat WhatsApp bezelako aplikazioa da. Horrelako aplikazio bat erabiltzea debekatuta dago 13 urtetik beherakoentzat. Hori jakinda, horrelako teknologiak erabiltzeko heldutasun

minimo bat ez izateak arrisku handia suposa dezake gure seme-alabentzat, beraien garunak garatu gabe daude oraindik eta.

Gai honekin kezkatuta, Gipuzkoako hainbat herritan, guraso taldeek hausnarketa prozesuak jarri zituzten mar txan; Tolosa, Zumaia..., pantailek gure bizitzan duten eraginaz jabetzeko. Talde horiek

Altxa Burua plataformaren barruan antolatu dira. Goierri mailan ere, maiatzean, prentsaurrekoa eta zenbait elkarrizketa ematen aritu ziren egitasmo honen inguruan, eta pixkanaka, herriz herri taldeak sortzen ari dira.

Itsasondon ere, talde bat sortu nahian dabil guraso talde bat eta parte hartzerantz animatu gaituzte:

Kaixo, Itsasondoko guraso talde bat gara eta kezkatuak gure seme-alabengan pantailen eta mugikorren erabilera goiztiar eta desegokiak izan ditzakeen eragin negatiboekin. Eragin horien artean, antsietatea, harremanetan eragin depresiboa, eduki desegokiak, arreta eta kontzentrazio arazoak, adikzioa eta autoestima arazoak daude.

Gai hau jorratu eta lantzeko asmoarekin Itsasondon lan talde bat sortzea nahi dugu.

Gipuzkoako beste herri batzuetan "Altxaburua" izeneko taldeak sortzen ari dira hainbat herri, eskola eta auzoetan. Talde horien helburua teknologiarren erabilera egokia bultzatzea da.

Gure helburua gai honen inguruko lanketa, formakuntza, sentsibilizazioa, etab. aurrera eramateko Itsasondon "Altxaburua" lantaldea sortzea da. Ekimen hau modu kolektiboan egin behar dela uste dugu, komunitatearekin elkarlanean.

Arrazoi horrengatik, Itsasondoko herritar guztiei galdeketa bat luzatuko dizuegu zuen behar eta kezka antzeman eta taldea sortzeko lehen pausoak emateko.

*Animatu eta parte hartu!!
Aldez aurretik, eskerrik asko!!*

*Harremanetarako:
altxaburuaitasondo@gmail.com*



Energia gure herrian



Kaixo, Itsasondo!

Guk, Urkipe Herri Eskolako 3.zikloko ikasleok, energia kontsumoari buruzko proiektu bat egin dugu. Gure proiektuak bi zati ditu: energia kontsumo ikerketa eta eguzki plakei buruzko lanketa. Artikulu honetan, gure bi ikerketa hauen berri emango dizuegu.

Proiektua hasteko, lehenengo energia motak landu genituen: **energia berriztagarriak eta ez berriztagarriak**. Munduan geroz eta energia gehiago kontsumitzen zela konturatu ginelako hasi ginen proiektu honekin. Gure helburua Itsasondoko energiaren inguruko ohiturak zeintzuk diren jakitea zen eta energia berriztagarrien gaian sakontzea ere bai.

Kontsumo ikerketarako, lehenengo galdera batzuk prestatu genituen, eta ondoren galdera horiek herri-tarrei banatu genizkien buzoien bidez. 2 kaxa egin genituen, eta herriko dendan eta Kaxintane tabernan jarri genituen erantzunak bertan bota ahal izateko. Erantzunak sailkatzen hasi ginen, gero erantzun horien emaitzekin grafiko batzuk egin genituen (hemen behean daude) eta ondorioak atera genituen.

Eguzki plakei buruzko lanketa azken orrietan izango duzue. Lehenengo udaletxeari galdetegi bat egin genion Itsasondoko eguzki plakei buruz informazioa biltzeko, eta hortik Hitzar energia komunitatera iritsi ginen. Udaleko erantzunekin ideia nagusiak atera genituen eta ondoren aldizkarirako artikulu bat prestatu genuen.

Egindako lana herriari zabaltzeko, gure proiektua herriko aldizkarian idaztea bururatu zitzaigun eta hemen daukazu emaitza.


Eskerrik asko guztioi zuen laguntzagatik.



KONTSUMO IKERKETA


1. Zein berogailu mota duzue etxean?

- A. Suarekin
- B. Gasarekin
- C. Bonbonarekin
- D. GEHIAGO:




2. Berogailua piztuta dagoenean lehoiak irekitzen dituzue?

- A. Beti
- B. Batzuetan
- C. Inoiz ez
- D. GEHIAGO:




3. Zenbat denbora edukitzen duzue berogailua piztuta?

- A. 1h-3h
- B. 3h-6h
- C. 6h gora
- D. GEHIAGO:




4. Zenbat gradutara edukitzen duzue berogailua normalean?

- A. 20°-22°
- B. 22°-25°
- C. 25° gora
- D. GEHIAGO:




5. Zenbat denbora egoten zarete dutxan?


- A. 5min-10min
- B. 10min-20min
- C. 20min gora
- D. GEHIAGO:



6. Zenbat dutxa hartzen dira zuen etxean egunean?


- A. 1-2 dutxa
- B. 2-4 dutxa
- C. 4 dutxatatik gora
- D. GEHIAGO:






7. Eskuak eta hortzak garbitzerakoan txorrota ixten duzue?

- A. Beti
- B. Batzuetan
- C. Inoiz ez
- D. GEHIAGO:




8. Zuen etxean nola garbitzen dituzue ontziak?

- A. Ontzi garbigailuarekin
- B. Eskuz
- C. Biak
- D. GEHIAGO:




9. Egunean zenbat aldiz jartzen duzue arropa garbigailua?

- A. 1-2 aldiz
- B. 2-3 aldiz
- C. 3 aldiz baino gehiago
- D. GEHIAGO:




10. Zuen telebista nola egoten da itzalita?

- A. Stand-by modua
- B. botoiarekin itzalita
- D. GEHIAGO:



11. Argi naturala dagoenean etxeke argiak piztuta daude?

- A. Beti
- B. Batzuetan
- C. Inoiz ez
- D. GEHIAGO:





EMAITZAK:

1. Itsasondon gehien erabiltzen den berogailu mota GASDUNA da. Etxe batzuetan PELLET eta ELEKTRIKOA ere erabiltzen dira.
2. Itsasondon ia inork ez ditu leihoak irekitzen berogailua piztuta dagoenean.
3. Itsasondon gehienek 1-3 ordu bitarte izaten dute berogailu piztuta.
4. Itsasondon gehienek 20 - 22 gradutan edukitzen dute berogailua.
5. Itsasondon gehienek 5-10min egoten dira dutxan, baina beste batzuk 10-20 min egoten dira.
6. Itsasondon gehienek beraien etxeetan egunean 1-2 aldiz erabiltzen dute dutxa.
7. Gure herrian gehienetan ia denek txorrota ixten dute eskuak eta hortzak garbitzerakoan.
8. Gure herrian bi modutan garbitzen dira ontziak: eskuak eta garbigailuz. Batzuek garbigailuan garbitzen dituzte ontzi guztiak, zartagiak izan ezik.
9. Itsasondon gehienek egunean 1-2 aldiz jartzen dute arropa-garbigailua.
10. Itsasondon gehienek stand-by moduan itzaltzen dute telebista.
11. Itsasondon gehienek ez dute argia pizten argi naturala dagoenean, baina beste batzuk batzuetan bai.

ONDORIOAK

Itsasondon, gure irritziz, nahiko ohitura onak ditugu energiaren erabileran. Hala ere, baditugu noski hobetu beharrekoak.

Adibidez, telebista itzaltzerakoan ez utzi "stand by" moduan, dutxan denbora gutxiago pasa, berogailuaren termostatoa 18 edo 19 gradutatik ez pasa, eta beharrik ez dagoenean ez piztu argirik.



EGUZKI PLAKAK

Gure herrian hainbat plaka instalazio daude, herriko toki hauetan: Lehenengo plakak udaletxeko teilatuan jarri zituzten 2020an. Hurrengoak, Errota frontoiko teilatuan, 2021ean. Hirugarrenak, Ibaiondoko industriagunean jarri zituzten, 2022an. Azkenik, Hitzar Koop. S. herriko energia komunitateak Iraola baserriko teilatuan instalazioa jarri berri du, oraindik ez dago martxan.

Falta diren plakak lehenbaiten jarri nahi dira funtzionamenduan. Tramite guztiak martxan daude, eta ahalik eta bizkorren martxan jartzea espero da.

Denbora tarte desberdinak behar izan dira plakak instalatzeko. Tamainaren arabera denbora gutxiago edo gehiago behar izaten da.

Udaletxeko plaketatik sortzen den energia udaletxean bertan kontsumitzen da. Frontoiko plaketatik sortzen den energiaren onuradunak udal eraikinak dira: frontoia bera, Kaxintane taberna, Itsasondo koop. janari denda, Urkipe Herri Eskola (udaletxean), Bizi Nahi jubilatuen elkarte, mediku etxea eta osasun etxeko etxebizitzak. Hitzarrek Iraolan jarrita dituen plaketatik, berriz, herriko 14 herritarrek jasoko dituzte onurak; Hitzar komunitateko 14 bazkidek hain zuzen ere. Haietako batzuk Itsasondon bizi dira, baina 5 Ordizian. Haraino ere iristen da energia.

Plaken energia guk nahi dugun etxebizitza, denda, taberna edo lantegietara irits daiteke.



Eguzki plakak jartzeak kostu bat du:

- Udaletxekoetan 17.208,92 €
- Frontoikoek 58.728 €
- Ibaiondokoek 19.010,55 €
- Iraolakoe 22.386,73 €

Proiektu guztiek dirulaguntzak jaso dituzte aurrera egiteko. Enpresa askok lagundu dute eguzki plaken proiektua aurrera eramaten: Erain enpresak, Eskisolar enpresak edota Krea enpresak, adibidez.

Eguzki plakek ez dute bakarrik eguzkia irtetzen denean lan egiten. Lainotuta egon arren, eguzkia hor dago izkutatuta, eta, gutxiago bada ere, plakek energia ekoizten dute. Eguzkia dagoen orduetan sortzen den energia gordetzeko bateriak erabiltzen dira. Pilatutako energia hori erabiltzen ez denean, beste jatorri batzuetako energia erabiltzen da: erregai fosiletatik lortutako energia, adibidez.

Eskola berriko teilatuan plakak jartzea aurreikusten da, Eusko Jaurlaritzak horrela esan zuen-eta. Eskolak behar duen energiaren zati bat ekoizteko jarriko dira. Plakek ez dute agian eskolak behar duen energia guztia ekoiztuko, baina bai kontsumoaren zati bat. Eskola berria Eusko Jaurlaritzak eraikiko duenez, oraindik ezin dugu jakin haren aurrekontua.

Zenbat diru aurreztuko den ere oraindik ezin dugu jakin.

Iberdrola da Hego Euskal Herriko hornitzailea eta, neurri handi batean, azken hitza duena. Gero eta energia komunitate gehiago sortzen ari dira, eta gero eta jende gehiago ari

da instalazioak jartzen. Baina prozesua ez da erraza, eta traba handiak jartzen ditu Iberdrolak; beharbada, bakoitzak behar dugun energia guk ekoizten badugu, energia hori ez diogulako Iberdrolari erosiko.

Herrian dagoen energia herrian ekoizteko helburuarekin jarri izan dira plakak Itsasondon eta bultzatu da Hitzar Energia komunitatearen sorrera. Herritik eta herriarentzat.



HITZAR KOMUNITATEA

Herritarrek, erakunde publikoak eta enpresa txikiak zein handiak elkartzuz osatutako erakundea da energia komunitatea.

Energia berriztagarrien sustapena eta energia kontsumoaren murrizketa bultzatzeko sortu zen. Burujabetza energetikoa du helburu energia komunitateak.

Euren ezaugarri nagusiak energia iturri iraunkorren erabilera eta herri eta auzoen garapen komunitario eta ahalduentzea dira. Lortuko dituen onurak ugariak dira:

-Aldaketa klimatikoaren aurkako borrokan lagunduko dute. Energia eredu aldatsen joan behar gara.

-Tokiko edo herriko sorkuntza bultzatuko da, kanpotik sortutako energiaren erabilera murriztuz.

-Energia-fakturetan dirua aurreztuko da eta multinazionalen (Iberdrola, adibidez) menpekotasuna gutxituko du.



-Herritarrek izango dute gai honekiko hitza eta erabakia.

-Pobrezia energetikoa bizi duten familiei laguntzeko tresna egokia izan daiteke.

-Tokiko ekonomia garatzen dute, bertako instalatzaileei aukerak areagotzen zaizkielako.

Helburu horiek kontuan hartuta, Itsasondoko Udalaren ekimenez, herritar talde bat bildu eta energia komunitatea sortzea erabaki zen 2022an: Hitzar Koop. S. energia komunitatea.

Egun, 46 herritarrek, Itsasondoko Udalak (bazkide laguntzaile gisa), enpresa batek eta irabazi asmorik gabeko herriko elkarte batek osatzen dute Hitzar komunitatea. Hasieran zehaztutako helburuak betetzeko lanean jarraitzea, proiektu berriak martxan jartzea eta bazkide gehiago lortzea da Hitzarren helburua. Hala, Itsasondon sortutako proiektua Goierri eskualdera zabaltzea da Hitzarren asmoa. Guztia helburu jakin batekin: etorkizun hurbilean, burujabetza energetikoa lortzea.

Bigarren projektua, martxan

Oraingoan ere berri onekin gatoz! San Joan auzoko Lukasain ganadu ustiategian 65 kWp-ko instalazio fotovoltaikoaren projektua garatu dugu eta Iberdrolak eman du baimena, tamaina horretako instalazioa egiteko. Orain, proiektu berrira batuko diren bazkideen bila hasi gara.

Urtea hasterako amaitu zituen Krea enpresak gure lehen instalazio fotovoltaikoaren lanak: Iraola baserriko ustiategiko 10 kWp-ko instalazioa. Eta lehen proiektua bideratuta dugula, bigarren teilatua bat begiz jo eta proiektua garatu dugu. Gure asmoa da 65 kWp-ko instalazio fotovoltaiko bat jartzea San Joan auzoan, Lukasain baserriko ustiategiko teilatuan.

Teilatuaren jabearekin akordio batera iritsi gara, eta Uhin energia aholkularitza enpresako ingeneriek garatu dute proiektua. Denera, urtean, 73.400 kWh-ko energia sortzea aurreikusten da, eta 60 hornidura punturen beharrak asetzea, neurri batean. Izan ere, gutxi gorabehera, etxebizitza bakoitzak 3.000 kWh/urteko kontsumitzen duela kontsideratzen da. Eta, beraz, norberaren behararen zati bat aseko dute proiektuan parte hartzen duten hitzarkideek; printzipioz, bazkide bakoitzak 1.000 edo 500 kWh-ko potentzia erosi ahal izango du.

Proiektu berri honen bidez, instalazioa ezartzen den puntutik 2.000 metroko erradioaren barruan dauden Itsasondoko eta inguruko herrietako hainbat kontsumitzaile energia berriztagarria bideratu nahi zaie.

Hitzarreko proiektu orotan bezala, Lukasaingo instalazioarekin lortu nahi dena da gure etxeetara iristen den energiaren gainean erabakiak hartzeko bidean urrats berri bat ematea, energia berriztagarriak sortzea eta CO2ren isurketak murriztea. Eta nola ez, herrian bertan ditugun baliabideekin energia sortzea, herrian bertan sortu eta kontsumitzea posible delako.



Urbina eta Agudoren hitzaketa



Lukasain ustiaketa



Lukasain plakakin



Argindar faktura ulertzeko tailerra

Herriko teilatuak, herriko onura

Gure Energia kooperatibaren ekimenak herriko teilatuak herriko onurarako erabiltzea proposatzen du. Teilatuetan instalatzen diren eguzki-panelak adibide garbia dira. Eguzki-panelak instalatuz, energia berriztagarria eta garbia sortzen da, eta hau guztia herritarron mesederako erabiliko da.

1. Herriko teilatuetan instalatutako eguzki-panelen bidez sortutako energia komunitateak berak kudeatzen du, eta kanpo merkatuen mendekotasuna murrizten da.
2. Energia berriztagarriak erabiliz, ingurumenari kalterik ez zaio egiten, eta CO2 isuriak murrizten dira.
3. Herriko teilatuak energia sortzeko erabilia, herritarren argindar-fakturak murriztu ditzazkegu.
4. "Auzolan" filosofian oinarrituta, bizilagunak proiektuaren parte sentitzen dira, eta horrek elkarlana eta komunitatearen loturak sendotzen ditu.



Oraindik Hitzarreko bazkide ez bazara, bete datuak eta egin zaitez bazkide. Energia lortzeko beste hainbat modu badirelako! Informazio gehiago behar edo nahi baduzu, jar zaitez gurekin harremanetan
hitzar@itsasondo.eus-era idatzita.

HITZALDI ETA FORMAZIO ARTEAN

Bigarren proiektua garatu bitartean, formatzen eta Hitzar Energia Komunitatearen berri ematen jarraitu dugu hitzarkideok. Hala, hainbat tailer eta hitzaldi antolatu ditugu herrian, eta beste pare bat hitzalditan hizlari modura jardun dugu. Hilabete interesgarriak izan dira.

Argindar faktura ulertzen

Apirilaren 24an, Sara Irastorza Goierriko Energia Bulegoko teknikaria izan zen herrian, eta etxera iristen den argindar faktura ulertzeko argibideak eta aholkuak eman zizkigun: fakturan agertzen diren datuak ulertu, norbere kontsumoaz jabetu eta hornitzaileekin zertaz negoziatu azaldu zigun, besteak beste.

Antonio Urbina eta Joseba Agudoren hitzaldia

Maiatzaren 15ean, gonbidatu bereziak izan genituen Kulturgunean: Antonio Urbina, NUPeko irakaslea (Nafarroako Unibertsitate Publikoa) eta energia fotovoltaikoan aditua, eta Joseba Agudo, Nazartek aholkularitza enpresako zuzendaria. Hitzarrez eta, oro har, energia komunitateez aritu zen Agudo. Eta Urbinak energia fotovoltaikoari buruz hitz egin zuen: sor-kuntzaz, onurez eta aukerez.

Autokontsumo partekatuen tailerra

Maiatzaren 28an, Sara Irastorza Goierriko Energia Bulegoko teknikaria izan zen berriro Itsasondon. Bigarren aldi horretan, Autokontsumo Partekatuari buruz jardun zuen Irastorzak. Autokontsumo Partekatua da Hitzarrek hautatu duen eredia, eta helburua da energia berriztagarria eta garbia sortzea

inguruan ditugun baliabideez baliatuz, ondoren guk etxean kontsumitzeko. Ereduaren inguruko argibideak eta adibideak eman zituen Irastorzak.

Energia komunitateen topaketa, Legorretan

Ekainaren 15ean, Euskal Herri osotik zein Kataluniatik etorritako 60 bat lagun inguru izan ziren Legorretan, energia komunitateen inguruko hausnarketa egiteko. Hitzar gonbidatu berezia izan zen, eta lehen minutuetan, gure ibilbideari eta egindako lanari buruz jardun ahal izan genuen, jendez betetako Herri Aretoan. Harremanak egiteko, sareak eraikitzeko eta beste errealitateak ezagutzeko aukera paregabea izan zen.

Hitzaldia, UEUn

Ekainaren 26an, euskal lurraldeen eta herritarren arteko artikulazioaren, harremanen eta lankidetzen arteko ikastaroan parte hartu ahal izan genuen, Udalbiltzak gonbidatuta. Herri gintzatik naziogintzarako bidean eman diren eta eman daitezkeen pausoen inguruko jardunaldia izan zen, eta hainbat kasu praktikoa aipatu ziren: haien artean, Hitzar. Hitzarrek orain arte egindako bideaz eta proiektua herritik Goierriara zabaltzeko egiten ari den lanaz aritu ginen.



Ihor eta Inna bikote ukraniarrek eta beraien sei seme-alabek (Ilya, Sofia, Angelina, Kristina, Alexander, Matvii) gerrak bultzatuta utzi behar izan zuten euren etxe, familia eta herrialdea.

Inna Musashova eta Ihor Zaichenko

2023ko apirilaren 15tik Itsadondon bizi den jatorri ukraniarreko familia

Eurek bezala 7.2 milloi ukraniarrek alde egin behar izan dute herrialdetik, eta beste 7.1 miloi pertsonak Ukrainako beste eskualde batzuetara joan behar izan dute. Datuak gordinak dira: 10.000 zibil eta ehunka mila soldadu hil dira jada 2 urte baino gehiago irauten ari den gerraren ondorioz.

Ukraina lurralde laua da, emankortasun handiko lur beltzak dituena.

Jitomir hirikoak dira Itsasondoko bizilagun berriak. Jitomir hiriburutik 200 km ingurura dagoen eskualdean dago eta bizi ziren gatazkak eztanda egin arte, Igorrek hiriburuan, Kieven, lan egiten zuen hotel bateko segurtasun arduradun moduan. Laneko baldintzen ondorioz Igor 3-4 astez behin bueltatzen zen etxera eta Inna (jostuna ikasketaz) hurrez eta etxeaz arduratzen zen. Bizitza lasai eta

egonkorra zuten, Euskal Herrian bezalako baso eta zelaiz inguratutako bizitokian.

2022ko otsailaren 24an gerra hasi zen, eta nahiz eta aste ba-tzuk lehenago Errusiarekin gerra izan zitekeen zurrumurrua egon eta hilabete lehenago Ukrainako kontsulatuetoako langileak eta enbaxadoreak herrialdetik ateratzen hasi, herritar askok ez zuten hone-lakorik espero.

Noiz atera zineten Ukrainatik?

Gerra hasi eta astebetera utzi genuen gure etxea, 2022ko martxoaren 2an. Ihor lana egiten zuen tokitik gertu borrokak zeuden jadanik eta Zhytomyrrera ere gerturatzen ari ziren errusiarrak, haurrak babesteko ez genuen beste aukerarik ikusi. (Inna) Oso kezkatua nengoen, haurrei zein azalpen emango genien pentsatzen, ez genituen kezkatu nahi baina ez genuen zalantzarik herrialdetik atera behar genuela. Etxetik ateratzean abentura bidaia bat egingo genuela esatea bururatu zitzaigun, modu horretara ahal zen gutxien eragin ziezaten bat-bateko aldegitte modu horrek, dena atzean utziz. Ez genuen nora joanik ez nola mugitu. Oso momentu gogorak izan ziren, eta kezkatua negoen ez baikenekien nora eta nola joango ginen, non amaituko genuen eta zer izango zen gure familiaz.

Zein egoera bizi dute orain herritarrek?

Herritarrak etengabeko arriskuan daude, bonba eta erasoek jarraitzen dute, ez dago ur, elikagai eta elektrizitate hornidura egonkorrik, ezta mediku, eskola eta bestelako zerbitzurik ere. Bizitza kostua bikoiztu egin da, ez dago lanik, azpiegiturak sunsirituta daude. Bertako herritarrak egoera larrian daude. Gerra hasi berrikan herrialdetik ateratzeko bide zehaztu eta antolatutako zeuden eta boluntarioak zeuden ibilbide osoan zehar, janari, arropa eta laguntza ematen.

Gure kasuan, gerra hasi eta egun gutxira atera ginenez, bide antolatu eta zehaztuak zeuden,

eta ibilbide ziur hauetan ez zen bidaia txartelik ordaindu behar. Bidaian zehar Gurutze Gorriko boluntarioak zeuden laguntza emateko tren-autobus geltokietan. Nora joan gintezkeen argi izan gabe hasi genuen gure bidaia. Gure herritik 20 kilometro-ra dagoen herri batean Errumaniara eramango gintuen lehen trenea hartu genuen, geltokian trenea jendez gainezka zegoen, hainbat eskualdetako herritarrez beteta, denak zutik, sartzeko ia tokirik gabe. 5 orduko bidaia 10 ordutan egin genuen, trenak jendea hartzeko egiten zituen parada guztien ondorioz. Errumaniako hostal batean gaua pasa ondoren Poloniako Cracora eramango gintuen 18 orduko autobus bidaia egin genuen (Polonian, Prozman lagunak genituen gerra hasi baino 2-3 lehenago bertara joanak bizitzera). Beraien etxean 20 pertsona baino gehiago egon ginen, eta 5 egunetara Frankfurterako trenea hartu genuen, eta handik Berlinera eta Parisera joan ginen. Tren geltoki guztietan galdetzen genuen Espainiara joateko zein bide zen egokiena. Parisen ez zegoen Espainiara etortzeko tren txartelik baina bertako herritar baten laguntzari esker gure motxilak lehiatilan gorde eta turismo eginez Eiffel dorrea ikusi ahal izan genuen, eta Tolouserako trenea hartu genuen eta handik Perpignanera. Bertako herritar batek Bilbo eta Donostia aipatu zizkigun, jakinik nik (Ihor) turismo eta segurtasun arloan lan esperientzia nuela bertan aukera gehiago izango nituel

eta, lan eskaintza eta baldintza hobek aurkituko genituela. Horrek zer pentsatua eman zigun. Perpignanetik Bartzelonara eta handik Madrilera ailegatu ginen, han gau bat pasa ondoren, Marbellaruntz joan ginen bertan lagun batzuk bizi ziren eta. Euren etxea oso txikia zen, astebetetz 11 pertsona logela batean egon ginen, deskantsatzeko aprobeztatu genituen egun hauek, bidaiaren ondorioz oso nekatuak baikeuden.

Perpignango herritar hark esandakoari kasu eginez, Bilbora joateko helmuga jarri genuen. Bilbora 2022ko martxoaren 20ean iritsi ginen. Iristean CEAREN programa baten bitartez Gasteizera eraman gintuzten eta bertan 9 hilabetez egon ginen eta handik Aragoiko herri txiki batera eraman gintuzten, ondoren Teruelgo Utrillas herrira. (Inna) Utrillasen ez nintzen batere eroso sentitzen, oso triste nengoen, depresioak jota. Gasteizen, eliza ebanjelikoaren bidez urteak Euskal Herrian daramatzen ukrainarrak ezagutu genituen, eta haiek esan ziguten hau bizitzeko oso herrialde ona zela, bizi kalitate ona, lan aukerak, klima, etab. Bien bitartean Ihor Bilbo eta Donostia inguruan lana topatzeko saiakerak egiten ari zen, Alcañizen zuen lagun baten bitartez, eta 2023ko martxoaren 1ean Gonenaga Yogurrak-ek Donostian duen lantegian hasi zen lanean egun batzuk lehenago egindako elkarrizketaren ondoren.

Gurutze Gorriaren programa baten arabera lana lortu eta hilabeteke epea genuen etxe-



Beraien bidaiaren hasiera.



Innaren ahizpa bat.



Innaren ahizparen senarra eta alabak arrantzan.



Innaren beste ahizpa.

bizitza bat aurkitzeko. Ihorrek Itsasondoko etxe hau topatu zuen zorionez eta Gurutze Goriaren itzulpen eta higiezin agentziako finantza ordaintzeko laguntzari esker 2023ko apirilaren 15etik hemen bizi da gure familia.

Familiarik baduzue Ukrainian? Zein da beraien eguneroko bizimodua?

(Inna) Ukrainian familia handia dugu. Nik bi ahizpa; horietako bat nere bikia da, 5 haur ditu, guda hasi zenean 5.umearen haurdunaldian zegoen, eta bere senarrarekin eta nire amarekin gure etxean bizi dira orain. Gure herrian ezta dirak ez dira maiz izaten, baina azpiegitura garrantzitsuak suntsitu zituzten hegazkinez botatako bonbekin

eta oinarrizko hornidurak kalte-tuta daude, elektrizitate hornidura, ura, etab.

Senarra soldatzaile elektrikoa da eta orain ez du lanik, herrialdetik atera nahi duten arren ez dute dirurik horretarako eta haurrak oso txikiak izateak ere ez diete laguntzen horrelako bidaia luze bat egiteko. Beraien baratzeko barazki, erle ontzietako ezti eta ahuntzak ematen dieten esnari esker bizirauten dute (behi bat zuten baina dirua lortzeko saldu egin behar izan zuten). Inguruan dituzten adinekoren laguntza ere ezinbestekoa dute.

Nire ahizpa zaharrena Kieven bizi zen bere senar eta seme-alabekin. Kieven erasoak maiz izaten dira eta beldur han-

diz bizi dira bertan. Gerra hasi zenean ahizpa seme-alabekin Los Angelesera joan zen (Estatu Batuak) bere koinata baten etxera, baina 6 hilabete bertan egon ondoren amak semearekin Ukrainara bueltatzea erabaki zuen, alabak Estatu Batuetan geratzea erabaki zuen. Ahizparentzat emozionalki ezinezkoa zen bere herrialdetik kanpo aurrera egitea, senarra Urkainan zuela. Haren erabakiak harridura piztu zuen bere inguruan.

(Ihor) Nik aita dut Ukrainian, lehen Kryvyi Rih hirian bizi zen, orain Zhytomyr eskualdeko Virlya herrian bizi da, menpekotasuna du eta zaintza behar du eta beste 9 nagusi eta bi zaintzailerekin bizi da kristau-egoi-tza batean.

Inork ez daki zer gertatuko den datozen egun, aste eta hilabeteetan eta etengabeko beldurra diote etorkizunari.

Egoera hobetzeko zantzurik ikusten duzue?

Senideek kontaktzen digutena-gatik eta komunikabideetan eta interneten irakurtzen dugunagatik, ez dirudi egoera hobetzen doanik ezta hobetzeko itxurarik duenik ere.

Zer moduz egokitu zarete Itsasondora?

Egokitzapena beti da zaila herri berri batera iristean, aurretik ere beste zenbait herritan bizi izan gara, bai Euskal Herrian eta baita Espainian, baina denborarekin egokituz joaten zara eta orain oso eroso gaude Itsasondon. Erljioari dagokionez, kristau ebanjelikoak gara eta Herreran Kristoren gorputza izeneko eliza dugu eta astebururo bertan elkartzeko gara gure komunitateko pertsonekin, gehienak ukrainiarrak dira. Ordizian ere lagun ukrainiarrak ditugu. Pozik bizi gara Itsasondok eskaintzen digun lasaitasunarekin, naturarekin eta bizi kalitatearekin eta gure umeak hazteko oso toki egokia dela pentsatzen dugu.

Eta umeak eskolan zer moduz egokitu dira?

Ukrainiako eskoletan haurrak oso isilik ibili behar izaten dute, irakasleei entzun behar izaten diete eta arau zorrotzak izaten dituzte. Lehen egunetik etxeko lan asko bidaltzen dizkiete, eta horrek sarritan haur txikiak eskolara joan nahi ez izatea eragiten du, haurrentzat estres handia delako heziketa eredu hori. Hemengo eskolan berriz,

irakasleak oso lagunkoak dira, jolasa eta hezkuntza uzartzen dute eskolan. Haurrak oso gustura joaten dira Urkipe eskolara, Sofiak esan ohi digu: ez dut Ukrainiako eskolan gehiago ikasi nahi.

Zer moduzko harrera jaso duzue Itsasondon?

Harrera beroa izan dugu, herritarrak oso abegikorak izan dira. Itsasondo asko gustatzen zaigu eta gure haurrak hazteko oso herri egokia iruditzen zaigu.

Nolakoa da zuen euskararekiko harremana?

(Inna) Nik hitz batzuk bada-kizkit, nire senarrak pixka bat gehiago, lankideek ere erakusten diote, pixkanaka-pixkanaka ikasten ari gara. Haurrei hobeto doakie, euskara eta gaztelera gero eta gehiago ulertzen dute eta zenbait kasuetan itzultzaile lanak egiten dituzte gurekin.

Euskal gizartearen eta ukrainiarraren arteko antzekotasunik edo ezberdintasunik baduzue aipatzeko?

Euskal Herriko eta Ukrainiako gizartearen arteko antzekotasunetako bat bi herriek euren hizkuntza eta tradizioarekiko duten maitasuna da. Han ere, ukrainiar hizkuntza dugu eta gure ohiturak balioan jartzen ditugu eta hauek sustatzen saiatzen gara. Hemen ere euskal kulturaren aldeko ekintza asko egiten direla ikusi dugu.

Lanarekiko dugun konpromisoa eta askatasunarekiko dugun sentimendua eta maitasuna ere antzekoak direla iruditzen zaigu. Sumatu dugun desberdintasun handiena eskola eredu da, lehen aipatu dugunarengatik.



ENTZIKLOPEDIA TXIKIA UKRAINA:

Ukraina^[1] (Україна, Ukrayina, ukra´jina) ahoskatua; Ekialdeko Europako estatu burujabea da, Itsaso Beltzaren ertzean dagoena. Ekialde eta ipar- ekialdean Errusiarekin du muga, ipar-mendebaldean Bielorusiarekin, mendebaldean Polonia, Eslovakia eta Hungariarekin, hego- mendebaldean Errumania eta Moldaviarekin, eta hegoaldean Itsaso Beltzarekin eta Azoveko itsasoarekin. Urteak dira lurralde-eztabaida dituela Errusiarekin.

603.628 kilometro koadroko eremua hartzen du eta 40 milioi inguru biztanle ditu. Bere hiriburua Kiev da, 2020an, Ukraina 189 herrialdetako GGI (giza garapenaren indizea) 74.a zen, laborantza emankorreko lur zabalak dituen, Ukraina munduko labore-esportatzaile handienetako bat da.

Klima: Ukrainak klima kontinental epela du, nahiz eta klima mediterraneo ere baduen Krimea hegoaldeko kostaldeak. Prezipitazio-maila asko aldatzen da eskualdearen arabera; euri gehien ipar eta mendebaldean eta gutxien hego eta ekialdean. Batez beste, tenperatura 5.5–7 °C da iparraldean eta 11–13 °C hegoaldean.

Landaredia: Landaredia, iparraldean, estepakoa eta estepa basoduna da. Hegoaldean, Krimeako iparraldean batez ere, lehorrekoaren ezaugarriak ditu, eta penintsularen hegoaldeko kostaldean, berriz, Mediterraneokoarenak, mahasti eta fruitu garratzeko arbolekin.

Hizkuntza: Ukrainako hizkuntza, "Ukrainska mova", hizkuntza erromaniakoa da, Ukrainako hizkuntza ofiziala da, eta ekialdeko hizkuntza eslaviarren familiakoa, gutxi gorabehera 33 milioi hiztun ditu, munduko 26. hizkuntza mintzatuena da.

Erljioa: Erljio nagusia kristautasun ortodoxoa da.



Gaztelekuko sarbide berria

Gaztelekua 2023ko udatik itxita dago. Erabilpen arazoak zirela-eta ixtea erabaki zen, erabilpen arauak erabaki eta sarbidearen inguruko hausnarketa egin bitartean.

Gaztelekua 2023ko udatik itxita dago. Erabilpen arazoak zirela-eta ixtea erabaki zen, erabilpen arauak erabaki eta sarbidearen inguruko hausnarketa egin bitartean. Hilabete ugari pasa dira ordudanik, eta udaletik erabiltzaile zein herritarrei honako azalpen hau eman nahi diegu:

2023an gaztelekuan erabilerari lotutako arazo handiak izan genituen:

1. **Sarrera arauak ez ziren betetzen:** hau da, erabiltzaile guztiek ez zuten sarbidetik txartela pasatzen, nahiz eta atean ongi adierazita egon hori egin behar zela. Hori horrela izanda, arazoak egon zirenean, ez genuen jakiten erabiltzaileak zeintzuk ziren, eta ardura txartela pasatzen zuenaren gain utzi behar izan genuen.

2. Asteburu askotan **espazioa zikin** geratzen zen (ontziak garbitu gabe, zaborra bertan utzita...)

3. **Droga kontsumoarekin arazoak zituen pertsona bat** egon zen gaztelekuan "bizitzin", eta bertan uzten zituen droga kontsumorako behar zituen gauzak.

2023ko abuztuan, garbitzaileak gaztelekuan topatu zuen egoera "kezagarria" iruditu zitzaigun eta osasun neurriak zirela-eta gaztelekua ixtea erabaki genuen.

Berriz irekitzeko prozedura oso luze joaten ari da eta hori horrela izatearen arrazoiak, tamalez, ez dira gure esku egon:

- Irailean, Salto enpresarekin harremanetan jarri ginen, udaletxeko atea kudeatzen

dituen enpresa baita. Gaztelekuko sarraila erre zutenez, enpresari eskatu genion sarbiderako sistemarik egokiena proposatzeko.

- Urriari bidali zuten "Mugikor bidezko sistema" ezartzeko aurrekontua. Hori ezartzeko hainbat baliabide behar zirela eta gaztelekua ikustera etorri behar zirela adierazi zuten.
- Urriaren amaieran etorri zen Saltoko teknikari bat, lehen aldiz, gaztelekua ikustera. Bertan internetik ez dagonez (sistemarako beharrezkoa da) aurrekontua berrituta bidaliko zuela adierazi zuten.
- Bitartean, urriko gazteria foroan, sistema berriaren berri eman zen eta arautegia moldatzearen beharra landu zen. Azaroko gazteria

- foroan, iada, arautegiaren zirriborroa landu zen. Bertan, ohiko arauez gain, sistema berriaren zehaztapenak jaso ziren, erabilerako ordutegiak zehaztu ziren eta arau-hausteen aurrean hartuko ziren neurriak aipatu ziren.
- Azaroaren erdian, gaztelekuo hezitzaileei erabiltzaileekin lanketa egitea eskatu zitzaien. Hezitzaileek ez zuten lortu gaztelekuo gazteekin lanketa egitea abendu amaiera arte, beste ekintza batzuk zirela medio edo ez zelako lanketa txukun bat egiteko behar beste gazte gerturatu.
 - Lanketa horren ostean, gazteek ordutegia aldatzea proposatu zuten. Aldaketak onartu ziren (beti ere, kontuan izanda 10/2015 LEGEA, abenduaren 23koa, jendaurreko ikuskizun eta jolas jarduerak arautzen dituena). Isun ekonomikoa dela-eta, azaldu zen udalaren borondatea ez dela inondik inora isunak ezartzea. baina espazioaren erabilera arautu behar dela eta horri erantzuten diola arautegiak.
 - Arautegiak eta aurrekontuak udalbatzak onartu behar dira, eta otsailaren 5ean egindako osoko bilkuran onartu ziren.
 - Saltori aurrekontua onartu zela adierazi genion, eta sistema ahalik eta azkarren ezartzeko eskatu genion. Lan karga handia zutela adierazi ziguten eta sistema ezartzeko bi hilabeteko epea eskatu zuten.

- Apirilaren erdian deitu zuten, softwarea eguneratzera etorriko zirela esateko. Informatikariak egin beharreko lanak maiatzaren 9an amaitu zituen.
- Ondoren, Saltoko teknikariak etorri ziren sarraila jartzera (maiatzaren 16an).
Kontuak horrela, asko atzeratu da gaztelekuo irekiera. Orain, atea mugikor bidez irekitzeko lizentzien eskaera jarri dugu martxan, ahalik eta azkarren nahi duenak gaztelekua erabil dezan.

GAZTELEKUKO SARBIDE BERRIA

Hemendik aurrera, gaztelekuo atea irekitzeko mugikor bidezko lizentzia bat beharko da. 2024an lizentzia hau doakoa izango da (probaldia izango da) eta 2025etik aurrera, urteko 3 €ko kostua izango du. Udal tasa izango da, eta ordainketa helbideratuko zaie eskatzaileei (baja ematen duten arte).

Horretarako jarraitu beharreko pausoak:

- Eskaera orria bete eta udalera bideratu. Eskaera orria emailaz bidal daiteke (gazteria-kultura@itsasondo.eus helbidera) edo udaletxera eramanean, harrera ordutegian (eskatzaileak beste norbaiti eska diezaioke eskaera orria eramateko).
- Garrantzitsua da eskaera orriko datu guztiak betetzea, bereziki telefono mugikorrarena. Izan ere, telefono horri lizentzia bat emango zaio, atea irekitzeko erabiliko dena.


- Ondoren, "JUSTIN MOBILE" aplikazioa jaitsi behar da mugikorrean.
- Gaztelekura sartu nahi denean, aplikazioa martxan jarri, mugikorra ate ondora gerturatu eta ireki egingo da.

Kontuan izan beharrekoak:

- **Pertsona guztiak aplikazio bidez (edo, mugikorrik ez aplikaziorik ez duenak, txartel bidez) ireki behar dute atea.** Aplikazioa pasa, atea ireki eta itxi egin behar da, atzetik datorrenak aplikazioa pasa dezan. Horrela, erabiltzaile guztiak erregistratuta geldituko dira.
- 14 - 16 urte bitartekoak **gurasoen baimen-agiria beteta** bakarrik sartu ahaliko dira gaztelekura. Norberaren mugikor zenbakia irekiera lizentzia bat emango zaio eskaera egiten dutenean.
- 14 - 16 urte bitartekoak **mugikorrik ez badute, gurasoen baimen-agiria beteta egin ahaliko dute eskaera**, eta atea irekitzeko txartela emango zaie (mugikorra izan bezain laster jakinarazi beharko dute, atea irekitzeko mugikor bidezko lizentzia bat emateko)
- 16 urtetik aurrera espazioan sartzeko eskaera norberak egin dezake.
Sarbidetarekin batera, esan bezala, arautegi berri bat landu da. Honen azterketa eta adostasuna lortze bidean bilera bat egin da, ekainaren 19an. Hurrengo atalean emango dira, hortaz, arautegiaren zehaztapen berri.
Ea ba lortzen dugun guztion artean espazioari erabilpen egokia ematea.

Enirio-Aralarko Mankomunitatea eta Itsasondo

Itsasondoarrak, beste gauza askoren artean, Enirio-Aralako Mankomunitateko partaide gara, beste hamalau herrirekin batera.



Mendietako Komunitateak Gipuzkoako historian oso presente egon ziren iraganean. Jabetza-erregimen berezia dute, eta lurra ez dira herri bakarreko biztanleenak, hainbat herritako bizilagunenak baizik. Hau bezalako mankomunitateak bazter guztietan izan ziren Gipuzkoan, baina gaur egun Aizkorriko Partzuergoa eta gure Enirioko hau besterik ez dira geratzen.

Enirio eta Aralarko Larreen Mankomunitatearen jatorria oso zaharra da. Lehen konkordia 1390ean egin zen, Amezqueta eta Abaltzisketaren artean, eta Orendain, Baliarrain eta Ikaztegieta artean. 1400. urtean, Henrike II.ak Aralar eta Enirio mendiak eman zizkion Juan de Amezqueta bere basailuari.

Horrek gatazka handiak eragin zituen Aralar inguruko herrrietan, eta, ondorioz, 1409an Juan de Amezquetak «Aralar

mendilerroa eta Enhirioko mendi eta devisak» saldu zituen, Aragoiko urrezko 1.400 florinen truke, «erdia Villafranca-ko hiribilduari eta bere auzoei –Legorreta, Ichasondo, Arama, Alzaga, Gainza, Zaldivia, Ataun, Beasain eta Lazcano– eta beste erdia Amezqueta, Abalcisqueta, Orendain, Baliarrain eta Icaztegiuari.»

Batzar Nagusia Abaltzisketako Suegi baserrian egiten zuten, eta hamabost udalerrietako alkateek parte hartzen zuten.

Baina 1409ko eraketa hark ez zituen arazo guztiak desagerrarazi; izan ere, beraien lurraldetasuna sendotzeko, tokiko erakunde batzuek zenbait kontu konpondu behar izan zituzten jabe laiko zein elizakoekin.

Haien artean, ondoko Nafarroarekin sortutako gatazkak 1519an Gipuzkoako Probintziak eta Nafarroako Erresu-

mak izenpetutako akordio batekin konpondu ziren.

Baina Orreagako Santa Maria la Real monastegia, Aralarko hainbat korteren jabe zen, eta mankomunitateak ez zionez eskatutako errenta ordaintzen, monastegiak 1717an Amezketako Udalarri saldu zizkion Aralarren zituen kortak, herriaren gainean dagoen San Martingo ermitarekin batera.

Kortak azalera zirkularrak dira, artamugarri, austarri edo kortarri izeneko erdiko mugarririk gabeko direnak, eta ganaduak bertan bazkatzeko mugatzen ziren.

Oraindik ere Aralarko korta edo sel horiek mantentzen dira, Aralarko mapa honetan ikus daitekeen moduan. Hainbesteko historia luzea duen erakundeak antzeko kontu asko esateko aukera emango digunez, joango gara hurrengo aleetan harekin lotutako gaiak jorratzen.

Jessy Madrigal Sevilla



.....
Itsasondoko herritik ez luke ezer
aldatuko gustura dago bertan.
.....

Noiz etorri zinen Itsasondora bizitzera?

2022an.

Non bizi zinen lehen?

Martutenen.

Zergatik erabaki zenuen Itsasondora etortzea?

Haurren amona hemen bizi delako etorri nintzen.

Zer gogoratzen duzu etorri zinen lehen egun hartatik?

Iritsi bezain laster haurdun nengoela jakin nuen.

Zer lanbide duzu?

Oraintxe bertan ez nabil lanean. Batxillergoa dut.

Itsasondoren zer ez zaizu gustatzen?

Ez dago gustatzen ez zaidan ezer.

Itsasondoren zer gustatzen zaizu?

Plaza gustatzen zait.

Zer zaletasun dituzu?

Kozinatzea.

Janaririk gogokoena.

Txahal-haragi egosia.

Edaririk gogokoena.

Arroza ananarekin.

Gogoko duzun Itsasondoko edo Goierriko leku bat?

Plaza.

Zerk eginarazten dizu irribarre?

Nire seme-alabak osasuntsu eta zoriontsu ikusteak.

Itsasondon biziko ez bazina, non biziko zinateke?

Hemen ez balitz, ez dakit non biziko nintzatekeen. Ez dut joaterik pentsatu, baina hala balitz, nire herrialdera izango litzateke.

Hemeroteka

ZIRKU TAILERRA (Otsailak 16)

Ekintza arrakastatsua izan zen zirku tailerrarena. 2 orduz, Zirkuo-lako lagunekin trebezia lantzen ibili ziren haur zein helduak.



MUS TXAPELKETA (Otsaila 17)

Aurten ere ospatu da gurean, Euskal Herriko Mus txapelketaren kanporaketa. Partaidetza ez da oso handia izan. Hemen irabazleak.



ZUHAITZ EGUNA (Otsailak 17)

Urteroko zitan ez dugu hutsik egin. Familia ugari elkartu zen aurtengo deialdian, lanerako tresnak hartu eta zuhaitz landare ugari landatu ziren.



MEMEGINTZA TAILERRA (Otsailak 23)

Gazte zein helduei zuzendutako saio dinamikoa izan genuen gaztelekuan. Primeran, pasa genuen irudi zein marrazkien bidez umorea sortuz.



EMAKUMEEN EGUNeko BAZKARIA + "MAGMA MIA" BAKARRIZKETA (martxoak 9)

Giro aparta izan zuten aurtengoan ere herriko emakumeak. Sukaldari trebeek menu itzela eskaini zieten, eta bazkalostean Beatriz Egizabal izan zuten ikusgai.



EMAKUME GAZTEAK ETA MUSIKA EUSKARAZ SOLASALDI ETA EMANALDIA (martxoak 15)

Korrikako egitarauaren barruan, Ianire Aranzabe, Eider Saez eta Esti Markezek saio bikaina eskaini ziguten. Lehenik herritarron galderak erantzun zituzten eta ondoren pare bat abesti eskaini zizkiguten.





KORRIKA TXIKIA (martxoak 22)

Gure txikiek eta ez hain txikiek primeran pasatu zuten, Aramatik abiatu zen Korrika txikian. Ondoren Itsasondoko plazan jolasak eta askaria egin zuten.



KORRIKA (martxoak 23)

Egun handia iritsi zen! Hunkigarria izan zen Korrika Itsasondotik barrena pasatzea. Herriko eskola, elkarte eta eragileek aukera izan zuten testigua eramateko.



IPUIN KONTAKETA, MAITE FRANKOREKIN (apirilak 10)

Aparteko saioa eskaini zigun Maitek, ohi bezala. Haur talde anitza eta handia elkartu zen eta kontaketa ugariz baliatu zen kontalaria, hauen arreta bereganatzeko.



KIROL ASTEA (apirilak 15-21)

KIROL EGOKITU SAIOA (apirilak 17)

Urtero legez, Kirol Egokituko Federazioko lagunak izan genituen gurean. Aurten, haur txikiagoei ere eskaini zaie kirol egokituko saioa. Balorazio positiboa egin zuten bertaratuek.



REALAREN PUZGARRIAK (apirilak 19)

Real Sociedad Fundazioaren eskutik, 4 puzgarri izan genituen, arratsalde batez, frontoian. Haurren gozagarri izan ziren eta ederki ibili ziren guztiak probatuz.



"ELIKADURA ETA KIROLA" HITZALDIA, XABI SMITHYREKIN (apirilak 19)

Aurkezpen bikaina egin zigun Xabik. Alde batetik, aholku orokorrak azaldu zituen, eta, bestetik, hainbat ikerketek aterako ondorioak partekatu zituen.

MENDI IRTEERA (apirilak 20)

Kirol asteari amaiera emateko, guraso elkarteak antolatuta, mendi irteera izan zen. Bi ibilbide antolatu ziren.



“JUANA” LIBURUAREN AURKEZPENA (apirilak 23)

Liburuaren eguna aitzaki hartuta, Jon Artano kazetari ospetsua izan genuen. Jende asko gerturatu ez zen arren, saio polita izan zen. Liburuak irakurtzeko gomendioa duzue liburutegi txokoan.



EUSKARAZ BARRA-BARRAKO IHESGELA AUTOBUSA (apirilak 26)

Ihesgelak modan direla-eta, Itsasondoko plazan izan genuen ihesgelarako atonduetako autobusa. UEMArekin lankidetzan antolatutako ekintza izan zen. Izena eman behar zen aurrez, eta txandak azkar bete ziren.



URKIKO JAIK (maiatzak 3,4 eta 5)

Eguraldiak asko lagundu ez duen arren, giro aparta egon da Urkin. Ohiko ekitaldiak egin ziren, bizilagunak elkartzeko aitzaki ona.



HERRI AZOKA (maiatzak 17)

Lehen aldiz egin dugu, aurten, Herri Azoka. 12 postu egon ziren, guztiak produktu ezberdinenak; liburuak, pitxiak, gozogintza, ukenduak, lore lehorrak....



“KANPORA SARTZEN” ANTZERKIA (maiatzak 24)

Zoragarria izan zen antzerki honetaz gozatzeko aukera izatea. Herriar asko gerturatu ez zen arren, aretoa ia bete zen. Antzerkiaren gaia latza izan arren, umorez jantzi zuten guztion gozamenerako. Amaitzeko, gainera, lanire Aranzabe izan genuen abesti bat eskaintzen.



“AURRETIAZKO BORONDATEEN DOKUMENTUA” HITZALDI – TAILERRA (maiatzak 22/ 29)

Lantzeko gaia xamurra ez den arren, aukera hau eskaini nahi izan diegu herritarrei. Gure amaiera eta hartu nahi eta ez ditugun tratamenduak zehazteko dokumentuaren lanketa egin genuen. Informazio guztia: <https://www.itsasondo.eus/node/10811>



URKIKO ASTEBURUA (maiatzak 25/26)

Udaberrian egin ohi den hitzorduan hogei lagun inguruk parte hartu zuten. Egitarau oparoa izan zuten; mendi buelta, toka jokua, xaguzaharrak ikusteko bira.... Ederki pasa zuten!




BERTSO SAIOA (ekainak 7)

Puntako bertsolariak izan ditugu, aurtien ere: Amets Arzallus, Jon Maia, Maialen Lujanbio, eta Aissa Intxausti. Gai jartzaile lanetan Igor Eguren izan dugu.

Primerako saioa eskaini digute, egungo gaiak jorratuz eta umore tonuaz.



Hemen aipaturiko ekintzez gain, **Hitzar** komunitateko hainbat tailer eta hitzaldi izan ditugu. Aldizkari honetan topatuko dituzue, 13 orrian hauen inguruko zehaztapenak.



Azken hilabete hauetan, gainera, bi tailer ere martxan izan ditugu:

ANTZERKIGINTZA TAILERRA

Gustura ibili dira antzerki tailerrekoak. Hitzartutako saioez gain beste hainbat adostu dituzte.

TXALAPARTA IKASTAROA

Maiatzean hasi eta ekainean amaiera izango duen ikastaroan dozena bat lagun dabilta. Ea herriko jaietarako txalapartariren bat baden!



liburu gomendioa

**ZORTZIGARREN HIRIA****Asel Luzarraga**

Zortzigarren Hiria aintzat hartzen hasi da Eleder, eta horrek ez dauka atzera bueltarik, onerako zein txarre-rako. Baina, nor ote Eleder hura? Historiak ahaztu duen berba al-dakorren poeta, kobazulo mistikoko ziberprofeta, hiriaren bihotzaren irakurle eta interpretea, ondoriorik gabeko iraultza txikien itsasargia, pazientzia handiaren jazarlea, zazpi

goseteen garailea, Barrio Altoko parkeko zuhaitzik zabalena-ren gerizpeko predikaria... Finean, bere hitzaren bidez argikun-dea hedatu nahi duen abere hutsa. Bitartean, auzo ahaztuan zerbait prestatzeari ekin diote: auzokide berriak iritsi dira, geratzeko asmoz eta auzoari bizia emateko borondate osoz, eta ez Zortzigarren Hiriko denen gusturako.

Eleberri hau Simun Palsu fikziozko idazlearen trilogiako pieza bat da, gure eskuetara iristen den bigarrena, Esan gabe doa eleberriaren atzetik. Asel Luzarragak ohi duen umorea inoiz baino gehiago zukutuz, Sakau herrialdean iraultza piztu aurreko garaira garamatza, elkartzera kondenatuta dauden bi istorio tartekatuz.

Los alemanes

Sergio De Molino

**Kaioen ordua**

Ibon Martin

Ura ez baita beti gardena

Xabier Lasa

**La mentira es la que manda**

Patzxi Irurzun

**Lehendakariaren alaba**


Iñaki Petxarroman

**El espejismo**


Camilla Lackberg

**Juana**

Jon Artano

**Los lobos también lloran**

Farley Mowat

**Mendeku eskubidea**

Ernesto Prat Urzainki

Dei galdu bat

Idoia Garzes

**Gazte Literatura****Errezeta****San Juan koka**

San Juan Koka, San Juan gaueko postretrik tradizionalenetako bat da. Oso ezaguna da Katalunian. Aurten egin nahi baduzu, errezeta aurkezten dizugu:

OREA EGITEKO OSAGIAIK:

- 500 g indar-irin
- 100 g azukre
- 10 g gatz
- Koilarakada txiki 1 kanela
- Limoi baten arraspa
- 2 arrautza
- 100 ml ur
- 100 g gurin giro-temperaturan
- 25 g okingegiko legami freskoa

PASTEL-KREMARAKO OSAGIAIK:

- «500 ml esne»
- «100 g azukre»
- 4 arrautza-gorringo
- 40 g maizena
- Bainila-zorro bat edo banilla-esentziaren koilarakada txiki bat.
- Akaberarako osagaiak:
- Arrautza irabiatu bat
- Gustatuz gero, pinoiak
- Ur tanta batzuekin bustitako azukrea

NOLA EGIN?

1. Bol handi batean, nahastu irina, azukrea, gatza, kanela eta limoi-arraspa. Egin tarte bat erdian eta gehitu arrautzak eta ura. Hasi oratzen koi-lara batekin edo eskuekin, osagaiak integratu arte.
2. Gehitu gurina zatitan eta oratzen jarraitu masa leun eta elastikoa lortu arte, bolaren paretetik aiereratuz. Oragailu elektriko bat erabil dezakezu, nahiago baduzu.
3. Xehatu legamia eta erantsi oreari. Minutu batzuk gehiago oratzen aritu, disolbatu eta ondo altxatu arte. Bola bat osatu orearekin, eta olio pixka batekin koipeztatutako bol batean jarri. Estali oihal heze batekin eta utzi leku bero batean bolumena bikoiztu arte, gutxi gorabehera bi orduz.
4. Bitartean, prestatu pastel-krema. Jarri esnea berotzen azukrearekin eta banillarekin su ertainean. Aparteko bol batean, irabiatu gorringoak maizenarekin pikorrik gabe geratu arte. Esnea irakiten hasten denean, kendu sutik eta isuri pixka bat gorringoen nahasketara, eta ondo mugitu, epeltzeko. Bota berriro dena burruntzalian eta jarri berriro sutan. Hagaxka batzuekin mugitu eten gabe, segundo batzuk loditu eta irakin arte. Kendu sua eta pasatu krema bol batera. Estali film gardenarekin, eta ukitu gainazala, zarakarra sor ez dadin, eta utzi erabat hozten.
5. Estali erretilu bat labe-paperarekin eta jarri labe berotzen 180 °C-tan.
6. Oreari gasa kendu eskuekin, irineztatutako gainazal baten gainean, eta arrabol batekin askatu, laukizuzen itxura emanaz. Jarri orearen gainean eta banatu pastel-krema gainetik, bi zentimetro inguruko ertza libre utziz. Ertzak barrurantz tolestu eta hatzekin sakatu zigilatze-ko.
7. Margotu ertzak arrautza irabiatuarekin eta pinoiak birrinduta bota kremaren gainetik. Hautsez-tatu gainazal osoan bustitako azukrea ere. Utzi koka 20 bat minutuz pausatzen pixka bat arindu arte.
8. Koka labean 25 minutuz eduki edo urreztatuta eta eginda egon arte.
9. Utzi sareta baten gainean hozten eta gozatu etxeko San Juan kokaz

Euskara txukuntzen

EUSKARA MAKARRONIKOA

Abenduak 20tik ez dut ikusi.
Ikasgai hau da gehiago
gustatzen zaidana.
Zutaz gogoratu naiz.

EUSKARA TXUKUNA

Abenduaren 20tik ez dut ikusi.
Ikasgai hau da gehien
gustatzen zaidana.
Zurekin gogoratu naiz.

AI ENE!!!!

Nafarroako gazteen laurdenak baino gehiago euskaldunak dira

Nastat estatistika institutuak euskararen ezagutzari buruzko ikerketa argitaratu du. Nafarren %26,7k dute euskararen ezagueraren bat.

Gorantz, pixkanaka. Euskararen ezagutzari buruzko ikerketa argitaratu du Nastat Nafarroako estatistika institutuak, eta, horren arabera, nafarren %26,7k dute euskarazko ezagueraren bat. Zehazki, herritarren %15,1 euskaldunak dira —euskara ulertzeko eta hitz egiteko gai direnak—, eta %11,6, berriz, euskaldun hartzaileak —euskara ulertu bai, baina hitz egiteko zailtasunak dituztenak—. Txostena osatzeko, 2022ko datu soziolinguistikoak eta demografikoak erabili ditu Nastatek. Eta datuek erakusten dute hazkundera mantsoa dela: euskaraz dakitenen ehunekoak bi hamarren egin du gora urtebetean. Hala ere, goranzko kurbak ez du etenik izan 1986tik. Garai hartan, Nafarroako euskaldunak eta euskaldun hartzaileak batuta, ozta-ozta gainditzen zuten %14ren langa. Jabi Arakama Euskarabideko buruaren ustez, halako ikerketek frogatzen dute euskara eta euskaldunak ez direla «anekdotikoak» Nafarroan: «80.000 inguru gara; ez da nolanahiko marka».

Euskaldun berriak, eskolatik

Gainera, gisa honetako beste ikerketa soziolinguistiko batzuetan bezala, Nastaten txostenak zurian beltz erakusten du nola areagotu den euskara Nafarroan: gazteen eskutik. Zehazki, euskaldun osoak dira 15 urtetik beherakoen %26,6, eta 15-24 urte artekoen %26,1. Hurrengo adin multzoan, 25 eta 34 urte artekoan, euskaldunak dira hamar herritarretik bi, eta, adinak gora egin ahala, behera egiten du pixkanaka euskaraz dakitenen ehunekoak. 65 urtetik gorako herritarren multzoan, euskaldunak ez dira %9ra iristen.

Nastat institutuak, bestalde, 25 eta 54 urte arteko adin multzoetan nabaritu du euskaldunen hazkunderik handiena: 25-34 tartean, adibidez, euskaldunak dira herritarren %19,6, iaz baino zazpi hamarren gehiago; 35-44 urte arteko taldean, berriz, %13,1 dira, eta hazkundera sei hamarrenekoa izan da. Helduen euskalduntzearen sustapenak badu loturarik fenomeno horrekin. Arakamaren irudiko, «eskolari eta helduen euskalduntzeari esker» heldu dira hiztun berri horiek, «familia euskaldunen barruko transmisioa ahaztu gabe».

agenda

EKAINA

24tik- uztailaren 19ra: Udalekuak.

27: Bingoa, 17:00 jubilatuetan.

28: Pintxo potea.

28: "Historiaurreko miaketak Oria arroan", 18:00, kulturgunean.

UZTAILA

8: Lurralde eta ongizate batzordeak, udaletxeko bilera gelan.

10: Jai batzordea, 18:00etan, bilera gelan.

ABUZTUA

15: Ama Birginaren eguna.

IRAILA

2: Lurralde eta ongizate batzordeak, udaletxeko bilera gelan.

19, 20, 21, 22 Itsasondoko jaiak.

Asteklima (ekintzak zehazteke).

26: Bingoa, 17:00, jubilatuetan.

URRIA

4: Pintxo potea.

7: Lurralde eta ongizate batzordeak, udaletxeko bilera gelan.

9: Herri bizitza batzordea (jaien balorazioa), 19:00etan bilera gelan.

11: Pintxo potea.

18: Pintxo pote amaierako ekintza.

24: Liburutegien eguna/helduentzako kontaketa.

24: Bingoa, 17:00 jubilatuetan.

26, 27: Urkiko asteburua.

31an: Gau beltza.

AZAROA

7: Lurralde eta ongizate batzordeak, udaletxeko bilera gelan.

13: Herri bizitza batzordea, 19:00etan, bilera gelan.


15an: Gaztain jana.

Kantu afaria (data zehazteko).

25: Emakumeen indarkeriaren aurkako eguna.

28: Bingoa, 17:00, jubilatuetan.

30ean: Talo jana "Euskaldunon jatorria, euskara eta irria"
Ion Martinez "Txiki" 18:30ean.



*"Bi arnas" dokumentala eskainiko da (data zehazteko).

telefono interesgarriak

| | |
|----------------------|-------------|
| Udaletxea | 943 881170 |
| • Gizarte Langilea | |
| • Udal Arkitektoa | |
| • Epaitegia | |
| Haurreskola | 943 164831 |
| Herri Eskola | 943 887704 |
| Arbel-Aitz elkarte | 943 881339 |
| Itsasondokoop | 722 366 173 |
| Arrastoa Botika | 943 882148 |
| Medikua | 943 007635 |
| Kaxintane Taberna | 606 756551 |
| Nautiko Taberna | 943 880012 |
| Izaskun Hotela | 943 880012 |
| Izaskun Ilepaindegia | 943 160285 |
| Sasieta | 943 161555 |
| Traste Zaharrak | 943 161590 |
| Taxi (Ordizia) | 678 035788 |

Ale honetan parte hartu dutenak:

Amaia Ugalde
Erkuden Mendizabal
Estitxu Irisarri
Iñaki Aizpuru
Itturritxiki guraso elkarte
Haur eskola
Hitzar komunitatea
Leire Irastorza
Maite Lasa
Nagore Etxeberria
Nerea Manzisidor
Ongizate lantaldea
Unai Aldasoro
Urkipe eskola
Urkipe eskolako haurrak

Itsasondo 2.0-k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Herriatik kanpo bizi baldin bazara, eta, korreoz edo e-mailez, aldizkaria zure etxean jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:

943 88 11 70

itsasondo2.0@itsasondo.eus

Lege gordailua:
SS-297-2010

ISSN:
2171-5572

**GOGORARAZTEN DIZUEGU
HURRENGO ALEA ABENDUAN
IZANGO DUZUTELA ETXEAN.**



**UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA**